

# Abarak

## Zinemaldia 2010

### SAIL OFIZIALA

GORKA BEREZIARTUA

## Omnia sunt communia!

XVI. mendeko anabaptisten lema aintzat hartu du epaimahaia: dena denentzat. Eztabaida luze eta aspergarria izan genezake hartutako erabakiaz, baina demokratikoa izan denik ezin uka. Hainbeste, ia inor ez dela geratu saririk gabe.

Peter Mullanen *Nedsentzat* urrezko maskorra: irudi du Paskaljevicek eta konpainiak zaku batean film guztien izenak sartu eta bat atera dutela. *Neds?* Ba, *Neds*. Nahiz eta ezer berezirik ez dakarren film soziala den, bat gehiago; nahiz eta metraje erditik aurrera erabat galtzen den.

Justuagoa da film horregatik Conor McCarronek irabazi duen zilarra; baita *Pa negre* ekoizpen kataluniarreko lana-

rengatik Nora Navasek eskuratutako emakumezko aktore onenaren saria ere. Raul Ruizen zuzendari onenaren sariatz zer esan: gaiztoegia dateke oharra, baina baten batek pentsa lezake txiletarraren minbiziak eragin duela sariztatzea; hobe maskor bat garaiz, omenaldiak berandu eta gaizki antolatzea baino.

Sari txikiak ere, bakoitza etxe banatarra: Herrialde Katalanak, Maroko, Norvegia... Ikusleak hotz samar utzi dituen Sail Ofizialarentzat hau zen, apika, palmares posible bakarra. Eta paradoxikoa da: gehien konbentzitu nauen filma, Gilles Paquet-Brennerren *Elle s'appelait Sarah*, ezer gabe geratu da. Lehiaketaz kanpo zegoelako. Bestela...



Peter Mullan urrezko maskorreakin.

### ZABALTEGI

MIKEL GARCIA


## Publikoa tontoa da

Eta horregatik ez du ulertu/baloratu nire obra handia. Kultur ezjakintasun orokorraren aitzakia hartuta justifikatu ohi du hainbat zuzendarik bere filma ikusleen gustuko ez izatea. Ados, jaialdietako zinema desberdina izaten da, ez hain komertziala eta mastekatua, eta arreta eta ahalegina eskatzen dizkio ikusleari, baina zabarkeria franko ere egin da esperimentazioaren izenean. Horregatik, zein ona den kritikak eta publikoak bat egiten dutenean, kalitate-rik gabeko obrak ez baitu historian luzaro iraungo, baina ikuslerik ez duena ere ez da urrun iritsiko.

Aurtengo Zabaltegi batasun hori lortu du orokorrean: Publikoaren Saria jasotzeko hautagai izan diren hamabi filmetatik bederatziri 7 notatik gora eman

diete ikusleek. Aldi berean, film horiek goraiatu egin ditu kritikak, oro har. 8,879 notarekin, *Barney's Version* izan da publikoaren garailea. *Poetry* fina, *Tuan Yuan* bitxia, *Carancho* basatia aurretik jarriko nituzke nik, baina *Barney's Version* ere gustatu zait: Barney Panofsky bizizale eta alkoholikoaren gorabeherak kontatzen dizkigu komedia dramatikoak, eta aktoreen lana bikaina da, batez ere Paul Giamatti protagonista handiarena.

Bestalde, aipatzekoa da dokumentalek aurtengatik izan duten protagonismoa. Eskertzekoa, ondo landutako obra ederak ikusi baitugu, errealitatea hizpide: hala nola, *Guest* bidaiaria, Bin Ladenen bizkartzain ohia protagonista duen *The Oath*, eta Saturrarango kartzelari buruzko *Debekatuta dago oroitzera* mingotsa.



*Barney's Version*, publikoaren gustukoena.

[www.argia.com/zinemaldia-2010](http://www.argia.com/zinemaldia-2010) helbidean, aurtengo Zinemaldiko pelikulen kritikak ikusgai.